

**Bidezidor kiroleko  
argazkiak eta  
kronikatxoak 2**



**Zestoa-Iraeta-Ibañarrieta-Zumaia**



**Txiki-txikitik harriak jasz  
Ibañarrieta auzoan,  
harri handitan izan genuen  
hoberena luzaroan.**

**Boxeolari bihurtu zuten  
ona izango zelakoan,  
gizagaixoa eroriko zen  
iruzurren erasoan.**



### **Irun-Hirugurutzeta-Fikoba**



**Hirugurutzen entzun omen zen  
garai batean latina,  
meategiak kolore iluna  
zerua, berriz, urdina.  
Beruna eta zilar ugari  
baina geroan burdina,  
meatzaria lehertu zuten  
eta berdin ikazkina.**



**Billabona-Amasa-Txertota-Andoain**

<p><b>Zeru garbia zoragarria baina lurrean lokatza, hirurogeita lagun baginen poliki-poliki martxa. Halakoetan zenbaitek badu oso mintzo aberatsa, belardietan ardiak eta haien ondoan bildotsa.</b></p>	<p><b>Heldu gazteok koloredunak irrikan gara ibiltzeko, bide honetan ba ote dugu arriskurik amiltzeko? Sorginen Zubi ondo-ondoan agindu edo antzeko, ezar gaitezen ordenaturik argazkia ateratzeko.</b></p>	<p><b>Maisu gisara erantzungo dut “hor da Sorginen Zubia”, ibilbidean irakasgaia gaur Euskal Mitologia. “Basajaun hori Baztan aldean Anboton Dama Maria, jentilak dira han Eratsunen finkatzen iruinarrria”.</b></p>
--	---	--





**Abaltzisketa-Larraitz-Gaintza-Altzagarate-Altzaga**

**Gaurkoan Ortzi haserre dugu  
gainezka dira errekak,  
aterpearen beroa hartzea  
agintzen du geldiketak.  
Salda, haragi eta lukainka  
baserriko nahasketak,  
Nor nor ote da bertso saioaz  
hasi dira lehiaketak.**

**Abaltzisketa Txindokipea  
oso dotore bidea,  
irribarretsu pozez beterik  
ikusten nuen jendea.  
Eguraldia lagun genuen  
giroa ezin hobea,  
aurpegietan sumatzen ziren  
zorion eta bakea.**

**Abaltzisketa eta Larraitzen  
sentitzen gara bizirik,  
paisaia berde eder askoan  
ez da behar botikarik.  
Anbulatorio egokiena  
honek ez du sortzen gaitzik,  
hamaiketako egin ondoren  
jendea badoa pozik.**



**Zarautz (Santa Barbara)-Getaria (San Anton)-Zarautz (2017-03-17)**

**Santa Barbaran aldapan zehar  
sumatzen da isilunea,  
pasa ondoren mutua ere  
ez da isiltzen, ordea.  
San Antonetik ikuspegia  
eder eta dotorea,  
elkarganatzte hauek dakarte  
jendearen gatzetzea.**



**Pasai Donibane-Jaizkibel-Pasai Donibane (2016-06-03)-(2017-03-24) azken biak**

<p><b>Mendi ibilian eztabaida hau sortu zen gure taldean, “Paradisua non ote dago goi edo beheko aldean” ? Eguzki printzak ikusten ziren gaztainondoen artean, zuhaitz hauexek esan zidaten “zabiltza zeru bidean” !</b></p>	<p><b>Hantxe hesia izanagatik egin genuen aurrera, kasu hauetan egokiena men egitea ote da? Aurreko batek agindu zigun goazen Jaizkibelera!, eta ondoren tortilla hartzera aitona-amonen etxera!</b></p>	<p><b>“Calle única” kale bakarra oraintsu arte herrian, hor galtzen dena, Jainko maitea! nola ez galdu mendian! Nora ezean ibili eta zer ote du memorian? Iparrorratza eros dezalabada galtzeko zorian.</b></p>
--	--	---



**Zumarraga-Azkoitia**



<p><b>Zumarragatik Azkoitiraino tarte ez da handia, hirurogeita bat gutxiago egiten ibilaldia. Eta ondoren goxo askoa Iturriko bazkaria, damatxo hauek merezi dute txalo eta oparia.</b></p>	<p><b>Peñaflorida Konde horrekin egin gara ilustratu, irakasleak nola dizkigun ezaugarriak markatu! Lehen unean talde osoa azken orduan bi katu, aukera hori galdu izana sekula ez da barkatu!</b></p>
--	--

(2015-05-22)

(2017-03-31) Ondorengoak ere bai



<p><b><u>Ibilbideen paisaiak</u></b></p> <p><b>Hondarribitik Ondarroara begira itsasbazterrak! , Gipuzkoako herri txikiak dotore eta ederrak. Basoan aske sentitzen gara txolarre eta eperrak, ibiltaria emazkiozu natura honi eskerrak!</b></p>	<p><b><u>Gure arteko harremanak</u></b></p> <p><b>Leturiondok ibilaldian badu beti zer esanik, gaur harremanez hitz egitean dugu arrazoiz beterik. Gure arteko solasaldian: “baduzue zer eginik, adin honetan inor ez dadin geratu isolaturik”.</b></p>	<p><b><u>Euskararen erabilera</u></b></p> <p><b>Bidezidorrak zeharkatzean aukera daukagunean, ikusiko da nola dagoen euskara osasunean. Klase apartak ematen dira leku izenen aurrean, eliza, etxe eta jauregi hor Ramon hasten denean.</b></p>
<p><b><u>Kirola eta bizitza osasuntsua</u></b></p> <p><b>Mendi ibili egoki honek onura asko dakartza, oihan-aireak , garbi-garbiak, txukuntzen digu arnasa. Anbulatorio hoberik ez da hemen ez dugu zalantza, dirurik gabe egin daiteke bizimodu aberatsa.</b></p>	<p><b><u>Mendi elkarteko emakumeak</u></b></p> <p><b>Mendi elkarte honetan gara bi gizon hamaika andre, honetaz mintzo garenez dira sortzen zenbait irribarre. Emakumeak bata zilarra gehien-gehientsuak urre, eta denetan langileena Mari Karmen Zubiaurre.</b></p>	



### Legorreta-Ibiur-Baliarrain-Ikaztegieta

<p><b>Hor da Txindoki zuri-zuria eguzki printzaz argia, Ibiur eder lasai askoa bake mozorroz jantzia. Mendi muinoan Orendain dago Ikusgarria herria! lokatzetatik pasa ondoren nork ote praka garbia?</b></p>	<p><b>Noiz aurkitu da orain bezala urtegia ia hutsik? goiko aldean ez da ikusten errekaxo bat besterik. Gaurko euriak ez du beteko uberka honen laurdenik, herri hauetan ez da izango zeru-malkoen beldurrik.</b></p>	<p><b>Gingildun hirukoitza omen da eliza honen leihoa, nahasia baldin badu ere estiloz da gotikoa. Urtegia gaur bete-betea eguraldi txit goxoa, nola sumatzen duen jendeak eguzkiaren beroa!</b></p>
---	---	--



**Legorreta-Ibiur-Baliarrain-Ikaztegieta (Ibiur urtegia ongi hornitua)**

**Bertsoak: (2015-02-13)-(2016-02-12)-(2017-04-07)**

(2017-04-05)

<u>Batzordekideak</u>	<u>Batzordekideak</u>	<u>Batzordekideak</u>
<p>Nola daraman <i>zenbatzaileak</i> zorrozki aseguru, hori primeran dagoke baina ez badu galtzen burua. Beste <i>norbaitek</i> ibiltariak koloretan banandua, <i>hirugarrena</i> hor ariko da antolatzen otordua.</p>	<p>Auzo-lanean talde-lanean horretan datza indarra, guztia <i>bati</i> utziz gero egingo luke negarra. Aukera izan baina ezinean sufritzen da barra-barra, hau da txoria gari artean goseak egon beharra.</p>	<p><i>Bibotedunak</i> olerkiekin jendea pozten omen du, eta <i>bikote</i> arduradunak oso gustura zaintzen du. Gure aldetik nahiko genuke oker guztiak zuzendu, bertso hauekin era xumean <i>talde osoa</i> omendu.</p>



Orio-Agorregi-Iturraran-Orio (2017-04-28)

Udaberriko eguna dugu  
Agorregin, Pagoetan,  
eta Belenek islaturik du  
bisaia ur gardenetan.  
Hostoak eta lore ederrak  
hemen dira adarretan,  
jende guztia liluraturik  
baina Ramon berriketan.

Liztorreta-Urdaburukoak: (2014-11-14) eta (2017-05-12)



**Liztorreta-Susperregi-Urdaburu-Liztorreta**

**Urdaburu mendiko basoa zeharkatzen**

**Pagadi eta goroldioa  
orbela ere tartean,  
mendizaleok sherpen antzera  
ilaran edo katean.  
Basajaun eta jentilak zeuden  
gordeta zuhaitz artean,  
iratxo eta lamiak ere  
zetozen talde atzean**

**Toki gutxitan ikusi duzu  
hemen ikusten duguna,  
orbel goxoak oinetan eta  
pago lirain hostoduna.  
Jendea pozik basoan zehar  
ederra baita eguna  
edertasuna areagotuz  
pelotoi koloreduna.**



**Herrera-mendiola-ulia-donostia**

(2015-09-11)

(2016-06-10)

(2017-05-19)

<p><b>Aldapa gora egokia da erabiltzea makila, gure artean ez baita inor ez neskatxa ez mutila. Mendiolara gaurko honetan bildu zaigu jende pila, hogeita hamasei ibiltariok osatu dugu kuadrila.</b></p>	<p><b>Ibilaldira ez da etorri hamahiru lagun besterik, baina paisaia ikusgarriaz jendea pozez beterik. Gora eta behera egin ondoren bazen gurean goserik, olibak, pastak eta tortilla ba al da gauza hobetik.</b></p>	<p><b>Tarteka euri eta ateri bagoaz mendian gora, noizean behinka gozaten dugu begiratuz itsasora. Zein ongi gauden! Zer zori dugun! etortzen zaigu gogora, goza dezagun une honetan itxaron gabe gerora!</b></p>
---	---	---

**Mandubia-Kizkitza-Osinalde-Antigua baseliza-Zumarraga (Kizkitzan eginiko argazkia)**



**Ezkioko bidegurutzean**

**Blai-blai eginda utzi gintuen  
etengabeko euriak,  
ibai-errekak gainezka ziren  
goi-menditik etorriak.  
Baso erdian lainoa eta  
paisaia izugarriak,  
hemendik jaurti ote zituen  
Tartalok iruinarriak?  
(2016-11-03)**

**Egun beroan zer goxoa den  
pago arteko airea,  
mendi muinotik ikus daiteke  
paisaia paregabea.  
Aizkorri aitzin Txindoki gibel  
beste guztia berdea,  
eguzkiari gaur zor diogu  
jendearen umorea.  
(2017-05-26)**



**La Antigua Elizako Ama Birjina**

(2017-05-26)

**Ibilbide berbera**

**Zumarragako tren geltokian  
mundu guztia korrika,  
izerditan blai berdin zetozen  
Itziar edo Nikita.  
Bi arduradun besoak altxa  
prakak erdi irekita,  
“bi segundotan tramankulua  
abiadan da jarrita” !**

**Ibilbide berbera**

**Gero barruan irakurri zen  
Idazki ondo zaindua,  
“gizon xumeak gakoaz zeukan  
Mendiola txukundua”.  
Pertsona hauek Isil-isilik  
Konpontzen dute mundua,  
eta olerki hau idazteko  
eduki behar burua!**



**Antigua kanpoaldean eta bazkal aurreko unea**



**Behi taldea ibiltarioi begiak gaintik atera gabe**



**San Martin-San Gregorio-San Martin-Lazkao (Ramonen azalpenak entzuten Saran)**





(2017-06-23)

**Barandiaran, On Joxe Miel  
txapela eta sotana,  
Euskal Herriak eman al dizu  
merezi zenuen fama?  
Helduen Hitzako ibiltariok  
etorririk zuregana,  
Sara etxean aritu gara  
goraipatzen zure lana.**

**On Joxe Miel dugu gogoan  
leku hauetan ibiltzen,  
Jentil Baratzen, haitzuloetan  
Kaska-hezurak ikertzen.  
Orrialde bat idatzi gabe  
ez zen inoiz oheratzen,  
bizi osoa pasa baitzuen  
ondarea aberasten.**



**Igeldo-Txakurtegia-Orio ibilbideko ur-jauziaren ondoan**



**Igeldo-Txakurtegia-Orio**

**(2015-08-28)**

**Senderismoko ibilaldian  
ostiralero jarria,  
aukera dugu ezagutzeko  
astiro Euskal Herria.  
Gaurko honetan bero handia  
sekulako egarria,  
ba ote dago utzi ez duenik  
edalontzia garbia?**

**(2016-08-26)**

**Gora eta behera ibilaldian  
taldea dugu sendoa,  
harriak bistaz galdu gaberik  
Oriorantz jaitsiz doa.  
Une batean geldialdia  
edateko ur tragoa,  
dakidan batek edango luke  
gusturago sagardoa.**

**(2017-06-30)**

**Nahiz eta gora-behera handiak  
jendea dabil arina,  
hiztun guztiok eta goxoa  
belardiaren usaina.  
Azken orduan euria baina  
bost axola, alajaina!  
Mariatxiak kantuan plazan  
gaurkoa egun bikaina.**



**Irun-Amute-Santiagotxo-Hondarribia**



(2015-07-10)

Santiagotik Guadalupera  
biboteduna beteta,  
bero handia baina itzalean  
izan genuen oreka.  
Jende guztia blai izerditan  
eta ni, berriz, herrenka,  
ba ote dago inguruetan  
benetan hainbat erreka?

(2016-07-08)

Noiz izango gizona  
emakumeen adina?  
Non ote dauka ezkutaturik  
arterako jakin-mina?  
Jaizkibeleko magal honetan  
andrea dabil arina,  
gizona. aldiz, tabernetan prest  
edateko txakolina.

(2017-07-14)

Erabakia hartu beharra  
non ote da Ardora?  
ezkerrekoa hartu ondoren  
iritsi gara farora.  
Hamaiketako honetan, behintzat,  
gutxik joko du ardora,  
hezetasunak izerditurik  
gehiengook sagardora.

Lauzpabost trago sagardo hartuz  
eraginik egarriak,  
gustura baina urdailarentzat  
izan ziren mingarriak.

Bertsozaleak jende artean  
igaro ditu gorriak,  
autobusean zorabiatu  
nolako une larriak!

(2017-07-14)





**Orio-Txurruka-Kanpina-Mollarri-Zarautz**



**Mollarriko ikuspegian**

(2015-07-17)	(2016-07-29)	(2017-07-21)
<p>Gaurko honetan izango dugu abiapuntu Orio, arduradunok jarriko gara jendearekin serio.</p> <p>Ibiltarion kuadrilari femenismoa dario, kezkarria gizonaen hutsune edo jario.</p>	<p>Ez dut pentsatzen hemen garenik bizipoza gabekoak, hala eta ere entzun dezagun zer dion psikologoak.</p> <p>“Sexu harreman, musika entzun ariketa fisikoak, eta jolasa omen ditugu zorionaren gakoak”.</p>	<p>Ibiltzekoan beharrezkoa zorioneko osasuna, aurpegietan sumatzen dugu ederto baikortasuna.</p> <p>Hankak mugitzen andre-gizonok sekulako gaitasuna, giro ederra honetan datza horrek dakar poztasuna.</p>



**Gaintzurizketa-Jaizkibel-Pasai Donibane (Londres baserriaren inguruan)**

<p>Ibiltarion buru-gogoan bai eguraldi zaterra! Iparralde eta mendebaleko haize eta euri zakarra. Emakumeak zazpi baziren eta neu gizon bakarra, Arartekoak hau ikusita egingo luke negarra.</p>	<p>Jaizkibeleko bidezidorrek badute bere ahotsa, barru-barruan ezkutaturik isiltasunaren hotsa. Horrez gainera, ikuspegia ez zait egiten arrotza, Santa Anako eliza aurrean gure bandera arrosa.</p>	<p>Uda beroan ezinbestean gorputzak behar du ura, edan duguna xurgatzea da eguzkiaren ohitura. Izerditzean ondorioa egarri eta hestura, urgabetzean ibiltarioi aldatzen zaigu itxura.</p>
--	--	---

(2015-08-14)

(2016-08-12)

(2017-08-04)

## Igeldo-Txakurtegia-Aginaga-Usurbil



**Mendizorrotzen hegian trikuharria**

<p><b>Monte Accutus (Mendizorrotza) Monteagudo ote da? Monte Draconis (herensugea) gaur Arrasate omen da. Hemen zenbaitek hartuta dauka sasi-maisuen tankera, piperra bildu balute hobe beltz-talde honen antzera</b></p>	<p><b>Malda beherako ibilbidean bagoaz Oria aldera, Zubietako bidea itxiz ezin heldu Lasartera. Beltz-gazte hauek osatzen dute iazko talde berbera, beren herritik etorri dira piperminak jasotzera.</b></p>
---	--

(2016-07-15)

(2017-08-11)





**Trintxerpe-Mendiola-Ulia-Donostia (Gotorleku Zaharreko inguruan eta Platako faroa)**





**Uliako aterpean taldea**

<p><b>Ulia aldean zuen taldeak ikusi hainbat landare, Plata faroa, itsas aparra zuhaitzen hainbat kolore. Barne-barnetik atera eta diosala zein dotore, makilak altxa gurutzatuaz gazteriarri ohore.</b></p>	<p><b>Mendiolako tarte honetan sumatzen da hutsunea, salatariak esan omen du “bete behar da legea”. Ezkutaturik zegoen plakak egiten zion kaltea? noiz izango da abertzalea bere herriko jabea?</b></p>	<p><b>Mendiola,Ulia,Jaizkibel paisaia da antzekoa, itsasoaren kolore urdina (e)ta berdea mendikoa. Aterpearen terrazan bertan dugu hamaiketakoa, txokilatezko turroi gozoa ez zen Eguberrikoa.</b></p>
--	---	--

**(2014-12-12)**

**(2016-09-23)**

**(2017-08-25)**

**Errenteria-Zamalbide-Txoritokieta-San Marko-Lau Haizeta-Altza**  
**San Markoseko ikuspegi batean, taldea**

**(2016-09-30)**

**Aiako Haitza aurrealdean  
eta Jaizkibel atzean,  
giro ederra izan duguna  
San Markora igotzean.  
Zein ederra den gure herria  
bertatik begiratzean!,  
a zer txaloak jendearena  
Altzatarran ordaintzean!**

**(2017-09-01)**

**Txokolatea bila badoa  
Pilartxo Elizondora,  
jaki gozoa erostearren  
ez baita joan edonora.  
Hodei ilunez buru gainean  
gaur joan gara Menditxora,  
burusoildunen gorengo maila  
etorri zaigu gogora.**





**Haitzeta Txabalako trikuharri aparta Txoritokietako bidean**

**Donostia-Lasarte-Urnieta**



**Plazaolako trenbide zaharra gunere berde bihurturik**

**Hogeita zazpi emakumeok  
hamaika gizon alboan,  
eguraldia aparta dugu  
sumatzen baita giroan.  
Baina prostata kexuka dabil  
eta egin behar kanpoan,  
sasi artean edo bestela  
baserri baten ondoan.**

**(2015-09-18)**

**Eguraldia primerakoa  
giroa ezin hobea,  
bonboiak eta galletak janda  
omendu dugu "Pibea".  
Sagardo hotzak izozten baitu  
tripazorroko labea,  
andrea zurbil bihurtu zaigu  
zorabioen jabea.**

**(2017-09-08)**